

Mayo 2007ko Maiatza

Hiriko neska eta mutilen **Adierazpena**

**Manifiesto** de los chicos y chicas de la ciudad

participación  
demokrazia  
prozesoa  
partaidetza  
eskubidea  
proximidad  
ciudadanía  
karrekin  
hiritartasuna  
ardura  
bellarra

Donostian herritarren  
partaidetza hobetzeko  
**proposamenak**

**Propuestas**

para mejorar la  
participación ciudadana  
en Donostia

**VI. Entzunaldi publikoa. Partaidetza**  
**VI Audiencia Pública. La participación**



**A**urkeztu egingo gara: gazteak gara, hiritarrak gara, behar batzuk ditugu, interresak, eskubideak eta betebeharrak, kontraesanak, gauzak egiteko gogoak, umorea, lagunak eta familia ditugu, altuak gara, baxuak, ile horiak eta beltzaranak, hangoak eta hemengoak, besterik gabe... hiri batetakoak gara, Donostiakoak, eta hiri hori hobetu nahi dugu. Zerbait gehiago jakin nahi baduzue, 248 gazte gara La Anunciata eta San Ignacio ikastetxetakoak, Ekintza eta Arantzazuko Ama ikastoletakoak, Altzan eta Intxaurrondon Udaletxeko kale hezitzaileekin lan egiten dugun neska-mutilak, Mundo Nuevo aisialdi taldeko eta AGIko partaideak, eta urtean zehar gure irakasle eta hezitzaileekin lan egin dugu Entzunaldi Publikoaren proiektuan.

Gogoratu behar dugu Entzunaldia hiritarren partaidetzarako espazioa dela eta hemen gazteok hizketan aritzen garela, gure iritziak eta ideiak eztabaidatzen ditugu eta proposamenak egiten ditugu Udaletxetik proposatzen diguzuen gaien inguruan. Urte hasieran, Udaletxetik partaidetza bideratzeko eta hobetzeko Plan bat egiten ari zinetela esan zeniguten eta txundituta geratu ginen gure iritziak jaso nahi zenituztela jakin genuenean, hau da, HIRI PARTAIDETZA izango zela aurtengo Entzunaldiko gaia. Denboraldi batera gure buruekin harrিতa geratu ginen gure ahoetatik politikariei buruzko hitzak irteten hasi zirela ikusi genuenean, zuengandik, politikan aritzen zaretenongandik, hainbestetan entzun ditugunak: demokrazia, hiritartasuna, eskubideak...

Aurrera egin dugun heinean, gai honek gurekin zer ikusi handia duela ikusi dugu. Gizarte honek gure iritziak gutxitan hartzen ditu kontutan, baita guri eragiten diguten gaietan ere, eta Entzunaldi hau aukera bat izan zitekeen esateko gure iritziak entzutea nahi dugula, ideiak baditugula eta gure inguruan gertatzen denaz jabetzen garela.

Eta behin hasita, esan nahi dizuegu ez dugula nahi edozein motatako hiri partaidetzarik, ez dugula nahi gure harremana edonolakoa izatea... horrexegatik, denon artean, balore batzuk adostu genituen, elkarrekin lan egin ahal izateko, errespetatzea beharrezko direnak.



Hauexek dira garrantzitsuak iruditzen zaizkigun baloreak;

- Adiskidetasuna
- Besteen ideiak errespetatzea
- Eskuzabaltasuna
- Inplikazioa
- Egia esatea, ez zaizkigu gezurra gustatzen
- Sormena
- Konpartitzea
- Tratua ez izatea agresiboa edota bortitza
- Alaitasuna
- Guztion itxura fisikoa errespetatzea

Hasieran, hiri partaidetzaz zer ulertzen genuen ikusteko, definizio bat adostu genuen: "Demokraziaren barruan eguneroko bizitzan herria hobetzeko herritarrek egiten duten prozesua, ekintza desberdinetan modu edo era desberdinetan kolaboratuz..." ongi iruditzen bazaizue definizioa manifestu honekin osatuko dugu.

## 1. Zertarako partaidetza?

Ikasturtean zehar gai hau landu ondoren, argi geratu zaigu partaidetzak gauza askotarako balio duela, baina batez ere, beharrezkoa da gauzak aldatzeko, harremanak hobekitzeko, errealitatea hobeto ezagutzeko.

Partaidetzak demokrazia indartzeko balio du, gutako bakoitzak pentsatzen duguna esanaz eta eskubideen eta aukeren berdintasuna bilatuz. Garrantzitsua da hiritarrek modu aktiboan parte hartzea gizartean, hiriak aurrera egin dezan eta elkarbizitza hobetu dadin. Horrek, guztion ongizatea posible egingo luke eta gure bizi kalitatea hobetu, gure oraina eta geroa, alegia.

Baina, zergatik da hain garrantzitsua partaidetza? Bueno, gure laguntzarekin politikariek zuen erabakiak hobeto hartuko dituzuela pentsatzen dugu. Denon artean gauzak aldatzakegu, gure hiria hobeto ezagutu, gizarte justuagoa, solidarioagoa eta konpartituagoa izango genuke, eta gureago sentituko genuke.

Baina ez du horretarako bakarrik balio, baita gutxitan baloratzen ditugun gauzentzako ere, kontutan ez ditugunentzako edota ahazten ditugunentzako ere; adibidez, ongi pasatzeko, jende berria ezagutzeko, besteekiko harremanak hobetzeko, eta, batez ere, geure buruarekin hobeto sentitzeko.

Hauteskundeak gertu daude eta partaidetza batzuetan botoak lortzeko erabiltzen da: guk, Donostiako gazteek, udaletxearekin dugun harremana zintzoa izatea nahi dugu.

## 2. Hitz eginaz ulertzen dugu elkar... kontua da nola hitz egin!

Hiri partaidetza prozesuetan garrantzitsua da komunikazioa, lagunekin eta familiarekin bezalaxe. Horren inguruan gauza batzuk esango ditugu, ziurrenik denontzat baliagarri izango direnak.

Konturatu gara, komunikazioa eman dadin jarrera hauek baztertu egin behar direla:

- Denok aldi berean hitz egitea
- Atentziorik ez jartzea
- Gure iritzietaz bakarrik arduratzea
- Entzun baino gehiago hitz egitea
- Distantzia
- Lotsa
- Haserreak, oihuak
- Hitz egiteko garaian tonu txarra
- Ez ezagutzea beste pertsonak
- Informazio eza
- Gogo falta
- Hitz egiteko txanda ez errespetatzea
- Besteekiko aurreiritziak
- Ez ezagutzea hizkuntza desberdinak

Ondorioz, hobe izango zen:

- Hitz egiten digutenean entzutea
- Banaka hitz egitea
- Galderak egitea
- Adi egotea
- Besteen iritzia errespetatzea
- Atentziorik jarri eta errespetuz entzutea gaia gure interesekoa ez izan arren
- Denok aldi berean ez hitz egitea
- Komunikatzeko bide desberdinak bilatzea, telefonoa, mobila, Internet...
- Besteekin hitz egiteko lotsa galtzea
- Norberarengan konfiantza gehiago eduki eta ez isilik gelditzea
- Denon intereseko gaiei buruz hitz egitea
- Haserre baldin bagaude eta oihuka hitz egiten badugu ez dugu elkar ulertzen; hobe

da pixka bat itxoin, lasaitu eta ondoren hitz egitea

- Bestearen lekuan jartzen saiatzea
- Besteiei gure burua aurkeztea
- Kontutan eduki behar da norekin ari garen hizketan; ea pertsona heldua den; haurra den...
- Ideia berrietara irekita egotea
- Informatuta egotea
- Beharrezko bada itzultzaile bat edukitzea edota zeinuen hizkuntzan komunikatzea
- Flexibleagoak izatea, bakoitza bere iritziarekin geratzen bagara, ez dugu aurrera egingo

### 3. Ez dugu edozein motatako partaidetza nahi: baldintza batzuk

#### **Informazioa**

Parte hartzeko informazioa behar dugu (argia eta osatu izan behar da) eta parte hartzen ari garen bitartean geure iritziak kontutan eduki.

#### **Jarrera**

Entzuten jakin, eta zenbait gauza onartzeko prest egon: iritzi desberdinak, lan egiteko beharra, erantzukizunak hartu, interesa jarri esaten den horretan, gainerakoek iritzia entzun, atsegina izan, besteekin elkarlanean aritu...

#### **Ordena**

Argi eduki zeintzuk diren helburuak, proiektua, hitz egiterakoan ordena mantendu, ordu-tegi bat jarri, denon artean adostutako arauak jarri, baloreak kontuan izan.

#### **Gainera...**

Jendearen artean lotura egotea eta ados jartzen saiatzea, hutsegiteak egin ditzakegula jakin arren. Proiektua baliagarria izatea, erabakitakoa aurrera eraman eta ezagutarazteko kanpaina on bat egitea.

Ongi informatuak egoteari, jarrera egoki bat izateari, ordena pixka bat eta ezagutzera emateko formula egoki bati, esperientzia atsegina bat izatea gehitzen badiogu, lortu dugu hiri partaidetza arrakastatsua izateko formula!

## 4. Elkarturik helburu bat lortzeko

Ikasturte hasieran egin genuen festan, partaidetzak eta elkarteek erlazio handia dutela ikusi genuen. Talde hauen bidez partaidetza erraztea lortzen da, eta horrekin batera helburu beraren alde borrokatzerako garaian zerbait lortzeko aukera gehiago egotea.

Bestalde, elkarteek ongi sentiarazten zaituzte, zure eta besteen ahaleginari esker, gizartea nola hobetzen doan ikus dezakezulako. Batzuk elkarri laguntzeaz gain, Udaletxera bidaltzen dituzte beraien proposamenak, eta kontutan hartuak izango direla espero dute eta modu desberdinetako laguntzak jasoko dituztela: publizitatea, diru laguntzak, lokalak, Udaletxearen aholkularitza pertsonala etab.

Ezin dugu ahaztu, elkarte batean abantailak izateaz gain desabantailak ere badirela. Batetik, denbora pixka bat eskatzen dute, eta zaila da denoi ongi dagokigun tarte bat aurkitzea; ondorioz, gutako batzuei kosta egiten zaigu gure denbora librean gauza hauetan aritzea. Gatazkak ere sor daitezke, akordioetara heltzea kosta egiten da, nahi duguna ez lortzeko frustrazioa ekar dezake... dena dela, hobe da elkarrekin lan egitea! Uste dugu beharrezko dela inplikatzeko eta ez guztiaz paso egitea, nahiz eta horrek guri esfortzu bat suposatu.

## 5. Parte hartu nahi dugu hiritarrak garelako

Hasteko, guk beste guztiek iritzia emateko duten eskubide bera dugu, helduak bezain hiritarrak gara gu ere, eta horixe da hiriaren inguruko erabakiak hartzen direnean guk parte hartu nahi izatearen arrazoi nagusia. Bestalde, kontutan eduki behar da, jendearen beharrak aldatu egiten direla, eta neska-mutilek ideia berriak eta interesgarriak ditugula gauzak aldatzeko lagungarri izan daitezkeenak. Inporta zaigu hirian gertatzen dena, gu baikara kalean denbora gehien pasatzen dugunak eta badakigu zer ez dagoen ondo; hartzen diren erabakiek eragina dute orain gudan eta baita etorkizunean ere.





## 6. Udaletxearekin gai hauen inguruan lan egitea gustatuko litzaiguke:

- Aisialdiaren antolaketa
- Ikastetxeko erabakiak
- Auzoetako proiektuak
- Gazteentzako hiri proiektuak
- Hauteskundeak
- Kontzertuak eta kultur ekintzak
- Iluminazioa
- Kulturen berdintasuna
- Teknologia berriak
- Hondartzako txapelketen antolaketa
- Kirol-guneak
- Parkeak aldatu, hobetu
- Drogarekin eta alkoholarekin dauden arazoak
- Gazteen partaidetza
- Kirolak
- Festen antolakuntza
- Gazteentzako espazioak eta ekintzak
- Ingurugiroaren kutsadura
- Garraioa
- Birziklapena
- Etxebizitza (gu izango garelako erosiko ditugunak)
- Gaztelekuen diseinua
- Gaueko lokalak
- Urbanismoa
- Atrakzio parkearen berrikuntza
- Musika zentroyen egokitzea





## 7. Hiritarren partaidetza orokorrean hobetzeko proposamenak

Gure helburua, ikus dezakezuen bezala, zuek guztiekin gure hausnarketak eta interesatzen zaizkigun gaiak konpartitzea da, eta aldi berean, gure ustez gazteen partaidetza bultzatzen lagungarri izango diren proposamenak ezagutzera ematea.

Gure presentzia beharrezkoa ikusten dugu Udaletxeak dituen partaidetza guneetan: Mugikortasun kontseiluan, Emakumearenean, Ingurugiroarenean... eta aurreko sailean aipatu ditugun gai guztien inguruan lan egitea gustatuko litzaiguke. Baina izan gaitezen errealistak: egun kosta egiten zaigu gure aisialdia talde desberdinetan lan egiteko erabiltzea, horrexegatik beharrezkoa da gai batzuei lehentasuna ematea, gehien eragiten digutenei eta interesatzen zaizkigunei, eta horien inguruan aritzea.

Hiri partaidetzarako kanalak hobetzeko orokorrean, lehenik jendearen partaidetza sustatzen eta indartzen saiatu behar gara; eta horretarako motibatu egin behar da. Ikustarazi behar da zerbaitetarako balio duela, sentiarazi behar da kolaborazioa beharrezkoa dela eta horren bidez gauzak hobetu daitezkeela. Emaitzak ahalik eta azkarren ikustea garrantzitsua iruditzen zaigu. Gustatuko litzaiguke proiektu arinak izatea eta epe laburrean emaitzak ikustea.

Partaidetza espazioei buruzko informazioa gu egoten garen lekuetara bidali beharko zen, bestela ez gara ezertaz enteratzen. Badakizue non gauden, ez?, ikastetxeetan, plazetan, gaztelekuetan...

Informazioak erakargarria izan behar du guregana heltzeko; egungo komunikabideak erabil daitezke horretarako, horiek baitira guretzat gertukoena, Tele Donosti, Localia, irratia, Internet... eta baita musika, iragarkiak eta argazkiak ere.

Proposatu nahi dizuegu, Udaletxea eta klaseko ordezkarien arteko bilerak egitea, hiriko informazio interesgarria eskuratzeko, eta gero klasekoei ezagutzera emateko. Hori tutorretza orduetan egin daiteke, eta aldi berean, ordezkariak ikaskideen iritzia jaso ditzakete Udaletzekoei adierazteko.

Udaletxeak hiritarren adina kontutan eduki beharko luke gai desberdinei buruz galdetzeko garaian. Adibidez, parke bat egiteko garaian, umeei galde diezaike zer gustatzen zaien gehien, beraiek baitira han egongo direnak beraien gurasoekin. Hau horrela izan beharko litzateke, adinaren arabera beharrak desberdinak direlako.

Ongi egongo zen zuek inkesta eta erreferendum sinpleak egitea, izan ere baliabide hauek beste modu batean ezinezkoa izango zen jende batengana iristeko aukera ematen dute.

Gazteen partaidetza Kultur Etxe, Gaztelekuen eta auzoetako elkarten bidez bideratu beharko litzateke.

## 8. Hiriko partaidetza guneak hobetzeko proposamenak

Partaidetza espazio konkrituak hobetzeko proposamen batzuk egin nahi ditugu, gure ideiak zeintzuk diren ikusteko:

### **ESKOLETAKO KIROL KONTSEILUA**

Kontseilu honi dagokionez, kirol talde guztiei eta entrenatzaileei (hauek gazteak izaten direla normalean) eskutitz bat bidali beharko zitzaie, talde honetan egiten dena kontatuz; uste dugu irakasleek parte hartzen dutela kontseilu honetan, baina ez digute informazioa transmititzen eta ez dituzte gure iritziak jasotzen, beraz, gu ere hor egon beharko ginatkeela pentsatzen dugu, esateko, adibidez, zeintzuk diren gure gustuko kirolak.

### **GAB**

Udaletxeko kontseilu guztiek Gazte Aholku Batzordearekin harremana eduki beharko zuten, horrela kontseilu horietan guri eragiten digun gai bat lantzen duten bakoitzean, guk jakingo genuke eta horren inguruan eztabaidatuko genuke.

Denbora eta diru gutxiago gastatzeko, Gazte Aholku Batzordeak gazteek egiten dituzten ekintzei buruzko informazioa eduki beharko luke: kirolak, kultur ekintzak, hiriko musika taldeak etab. beraien datu pertsonalak eta harremanetan jartzeko bidea; horrela kirol-guneei buruz lan egin behar bada, gai honi buruz interesa dutenei abisatuko zaie, eta ez, adibidez, musikarekin lotura dutenei.

### **UDALETXEKO WEB ORRIA**

Gure kexak, iritziak eta proposamenak agertzeko Udaletxeak duen Web orria egokitu egin beharko zen. Izan ere gune hori partaidetza espazio bat dela ulertzen dugu, eta ez zaigu erraza egin bertan ibili eta behar duguna aurkitzea.

## BESTE BATZUK

Mugikortasunean ez dakigu parte hartzea gustatuko ote zaigun, edo hobeto esanda, ikusten dugu maila desberdinetako gaiak daudela eta konkretuenak interesatzen zaizkigula: ikastetxetik etxerako bidean dauden bidegorriak, autobusetan bizikletak eraman ahal izatea... Baina, adibidez, erabakitzea autobusen linea orokorrak, ziurrenik ez. Bueno, ikus dezakezue gauza zehatzek erakartzen gaituztela!

Festak antolatzekeo garaian bilera irekiak izatea gustatuko litzaiguke, eta honi buruz zerbait entzun dugun arren, gehienok ez gara enteratu.

Aisialdiarekin erlazionatutako gaiak lantzeko, espazio bat egotea proposatzen dugu. Hemen Udaletxeko sail desberdinak egon beharko ziren, gai hauen inguruan aritzen direnak: kirolak, kultura, CAT, aisialdi taldeak, auzoetako elkarteak etab.

Gaztelekuak gazteentzako partaidetza espazioak dira eta egokia iruditzen zaigu gazteei leku hauetan ardura gehiago ematea, adibidez, ekintzak antolatzekeo garaian.

Hauteskundeak sarriago egitea proposatzen dugu, 4 urte denbora asko delako politikok ez badaude lan ona egiten. Ez dakigu nola, baina iruditzen zaigu partidu politikoez gazteriaren iritzia kontutan eduki beharko luketela beraien programetan.

Honaino iritsi gara, nahikoa hitz egin dugu, orain EGITEA dagokigu!!!

Adi egoteko konpromisoa hartzen dugu, Donostian zer gertatzen den ikustea hiriko bizi-tzan gehiago inplikatzeko.

Gure bila etortzea eskatzen dizuegu, guri galdetzea, guri entzutea, erantzunak ematea, eguneroko bizi-tzan gu kontutan izatea, manifestu hasieran esan dugun bezala.

Hiria denona da eta hau hobetzea bertan bizi garenon erantzukizuna da. Gainera ez zalantzarik izan, gurekin ongi pasako duzue!!!

Ez gara agurtuko, zuekin egin behar dugun lana Entzunaldi honekin hasi baino ez baita egin. DAGOENEO EZAGUTZEN DUGU ELKAR!!!



**N**os vamos a presentar: somos jóvenes, somos ciudadanos y ciudadanas, con necesidades, con intereses, con derechos y con responsabilidades, con contradicciones, con ganas, con humor, con amigos y familia, altas, bajos, rubios y morenas, de aquí y de allá, sin más...formamos parte de una ciudad, Donostia, que queremos mejorar. Si todavía queréis saber algún detalle más, somos 248 chicos y chicas de los colegios La Anunciata y San Ignacio, las ikastolas Ekintza y Arantzazuko Ama, somos chicos y chicas que trabajamos con los educadores de calle del Ayuntamiento en Alza e Intxaurre, del grupo de tiempo libre Mundo Nuevo y de la Asociación AGI, que a lo largo de este curso hemos trabajado con nuestros profesores, profesoras, educadores y educadoras en el proyecto de Audiencia Pública.

Recordar que esto de la Audiencia es un espacio de participación ciudadana en el que los y las jóvenes dialogamos, debatimos nuestras opiniones e ideas y hacemos propuestas para presentarlas al Ayuntamiento sobre el tema que desde el Ayuntamiento nos proponéis.

Por cierto, este año cuando nos dijisteis que estabais trabajando en un Plan para ordenar y mejorar la participación que estáis haciendo desde el Ayuntamiento y que os gustaría contar con nuestras aportaciones, vamos, que la PARTICIPACIÓN CIUDADANA iba a ser el tema de la Audiencia, nos quedamos alucinados. Poco a poco nos sorprendimos a nosotros mismos oyendo cómo salían de nuestra boca palabras que casi sólo habíamos oído decir a personas que como vosotras y vosotros trabajan en política: democracia, ciudadanía, derechos...

Pero a medida que avanzábamos hemos visto que tenía que ver mucho con nosotros y nosotras, con cómo nos sentimos en una sociedad que tiene muy poco en cuenta nuestras opiniones, ni siquiera en los temas que más nos afectan, vimos que teníamos la oportunidad de decir que queremos tener voz, que tenemos ideas, que sí nos enteramos de lo que pasa a nuestro alrededor.

Y ya puestos, os queremos decir que no queremos cualquier participación ciudadana, no queremos relacionarnos de cualquier manera... por eso acordamos entre todos y todas unos valores que nos parecen importantes respetar si queremos trabajar juntos y juntas, por qué de eso se trata ¿no?



Estos son los valores que nos parecen importantes:

- La amistad
- El respeto a las ideas de los demás
- La generosidad
- La implicación
- La sinceridad, no nos gustan las mentiras
- La creatividad
- El compartir
- El no tratarnos con agresividad y violencia
- La alegría
- El respeto al aspecto físico de todos y todas

Ya al principio, para arrancar, nos pusimos de acuerdo también en esta definición sobre lo que entendíamos sobre participación ciudadana: "Proceso que realizan los ciudadanos y las ciudadanas en la vida diaria, dentro de la democracia, para mejorar la ciudad colaborando de forma diferente en actividades diferentes...", si os parece vamos a completarla con este manifiesto.

## 1. ¿Para qué la participación?

Lo que nos ha quedado claro, después de haber trabajado este tema durante el curso, es que la participación sirve para cosas diferentes, pero sobre todo nos parece que tiene que servir para cambiar las cosas, para relacionarnos mejor, para conocer mejor la realidad.

La participación sirve para potenciar la democracia, expresando lo que cada uno de nosotros pensamos, buscando la igualdad de derechos y oportunidades. Es importante que la ciudadanía tome parte de una manera activa en la vida social para conseguir el progreso de la ciudad y para mejorar la convivencia de la sociedad. Esto, indudablemente, traería el bienestar de todas y todos y mejoraría nuestra calidad de vida, nuestro presente y nuestro futuro.

Pero, ¿por qué es tan importante la participación? Bueno, de este modo ayudaríamos considerablemente a que los políticos acertaseis más en vuestras decisiones. Entre todos y todas podríamos cambiar las cosas, conoceríamos mejor nuestra ciudad, tendríamos una sociedad más justa, más solidaria y más compartida, y la sentiríamos más nuestra.

Pero no sirve sólo para esto, también sirve para cosas que no siempre valoramos o que no tenemos en cuenta y se nos olvidan; como pasárnoslo bien, conocer gente nueva, aprender a mejorar las relaciones con los demás, y sobre todo, sentirnos mejor con nosotros y con nosotras mismas.



Las elecciones están cerca y la participación a veces se utiliza para conseguir votos: nosotros y nosotras, los y las jóvenes donostiarros, esperamos que la relación con nuestro Ayuntamiento sea sincera.

## 2. **Hablando se entiende la gente... ¡la cosa es cómo se habla!**

La comunicación en los procesos de participación ciudadana es tan importante como la comunicación con nuestros amigos, nuestra familia. Os comentamos algunas cosas en este sentido, que seguro nos vendrán bien a todos.

Nos hemos dado cuenta de que para que la comunicación funcione sobran estas actitudes:

- Hablar a la vez
- No prestar atención
- Solo preocuparnos de nuestras opiniones
- Hablar más que escuchar
- La distancia
- La vergüenza
- Los enfados, los gritos
- El mal tono a la hora de hablar
- No conocer a la otra persona (o a las otras personas)
- Falta de información
- Falta de ganas
- No respetar el turno de palabra
- Los prejuicios sobre los demás
- No conocer los distintos idiomas

Por lo que sería mejor:

- Escuchar cuando nos hablan
- Hablar de uno en uno
- Hacer preguntas
- Estar atento o atenta
- Respetar las ideas de los demás
- Poner atención y escuchar con respeto aunque el tema no nos interese demasiado.
- No hablar todos y todas a la vez
- Buscar diferentes medios para poder comunicarnos como el teléfono, móvil, Internet...
- Perder la vergüenza para hablar con los demás.

- Confiar más en uno mismo o en una misma y no quedarse callado o callada.
- Hablar sobre temas que interesen a todos y todas.
- Si estamos enfadados y hablamos gritando no nos entenderemos bien; será mejor esperar un poco, calmarse y después hablar.
- Intentar ponernos en el lugar del otro
- Presentarte a los demás
- Hay que tener en cuenta con quién estamos hablando; si es una persona adulta, si es un niño o una niña...
- Intentar tener la mente abierta
- Intentar estar informados
- Si es necesario poder disponer de un traductor o hablar en el idioma de signos.
- Ser flexibles, porque si cada uno se queda con su opinión no avanzamos.

### 3. No queremos una participación cualquiera: algunas condiciones

#### Información

Informar para que participemos (la información debe ser clara y completa) y una vez estemos participando tener en cuenta nuestras opiniones.

#### Actitud

Saber escuchar, estar dispuesto o dispuesta a aceptar que existen diferentes posturas, a trabajar, a tomar esa responsabilidad, a poner interés en el tema, a escuchar la opinión de todos y todas, a respetar las decisiones de las demás personas, a ser agradable, a colaborar con los demás.

#### Orden

Tener claros los objetivos, el proyecto, hablar en orden, establecer un horario, poner normas que acordemos entre todos y todas, tener en cuenta los valores.

#### Además...

Que haya unión entre la gente y que nos pongamos de acuerdo, sabiendo que podemos cometer errores. Tratar de que el proyecto sirva de algo, llevar adelante lo que se ha decidido entre todos y todas, y para dar a conocerlo crear una buena campaña.

Si a todo esto, es decir; estar bien informados e informadas, una buena actitud, una pizca de orden y un buen método para difundirlo se le añade que la experiencia resulte agradable, ¡ya tenemos la fórmula perfecta para que salga una participación ciudadana con éxito!

## 4. Juntos por un objetivo

A principio de curso, en la fiesta que hicimos, empezamos a darnos cuenta de que la participación y las asociaciones tienen mucho que ver. A través de estos grupos no sólo podemos facilitar la participación, sino que a la hora de luchar por un mismo objetivo tenemos más posibilidad de conseguirlo.

Por otra parte, las asociaciones te hacen sentir bien, pues gracias a tu esfuerzo y al de otros, ves como la sociedad mejora. Algunas, además de ayudarse entre ellas, hacen llegar sus propuestas al Ayuntamiento, donde esperan ser tenidas en cuenta y ser ayudadas por diferentes medios como publicidad, subvenciones, locales, asesoramiento del personal del Ayuntamiento etc.

No nos podemos olvidar de que en una asociación no todo son ventajas, también hay inconvenientes. Por un lado hay que dedicarle tiempo y es difícil encontrar el momento en el que todos y todas estemos disponibles; por tanto, a algunos y algunas nos cuesta dedicar nuestro tiempo libre a estas cosas, pueden surgir conflictos, que cueste llegar a acuerdos, frustración por no conseguir lo que queríamos...en cualquier caso, es mejor trabajar unidos! Creemos que es necesario implicarse y no pasar de todo aunque nos requiera algún esfuerzo.

## 5. Queremos tomar parte porque somos ciudadanos

Para empezar, decir que una de las principales razones por las que queremos tomar parte cuando se deciden cosas sobre la ciudad, es porque tenemos que tener el mismo derecho a opinar, somos igual de ciudadanos y ciudadanas que los adultos. Por otra parte, hay que tener en cuenta que las necesidades de la gente cambian y los chicos y chicas jóvenes tenemos ideas nuevas, interesantes que pueden ayudar a cambiar las cosas. Nos importa lo que ocurre en la ciudad, ya que somos los que más tiempo pasamos en la calle y sabemos lo que no está bien; las decisiones que se tomen hoy nos repercuten ahora y repercutirán en el día de mañana.

de los demás  
tomar parte  
manifesto


17



ciudad

## 6. Estos son los temas en los que nos gustaría trabajar con el ayuntamiento:

- Organización del tiempo libre
- Decisiones sobre la escuela
- Proyectos de los barrios
- Proyectos de ciudad para jóvenes
- Elecciones
- Conciertos y actividades culturales
- Iluminación
- La igualdad de culturas
- Nuevas tecnologías
- Organización de los torneos de playa
- Instalaciones deportivas
- Cambiar los parques, mejorarlos
- Los problemas que hay con la droga y el alcohol
- Participación de los y las jóvenes
- Deportes
- Organización de las fiestas
- Espacios y actividades para jóvenes
- Contaminación medioambiental
- Transporte
- Reciclaje
- Vivienda (ya que somos nosotros los que vamos a comprar)
- Diseño de Gaztelekus
- Locales de noche
- Urbanismo
- Restauración del parque de atracciones
- Habilitar los centros de música



## 7. Propuestas para mejorar la participación ciudadana en general

Nuestro objetivo, como estáis viendo, es compartir con todos vosotros y todas vosotras nuestras reflexiones, los temas que nos interesan y mostraros diferentes propuestas que, nos parece, ayudarían a que los jóvenes participáramos más.

Pensamos que deberíamos estar presentes en todos los espacios de participación que el Ayuntamiento tiene: Consejo Asesor de Movilidad, Mujer, Medio Ambiente... también nos gustaría trabajar sobre todos los temas que exponíamos en el apartado anterior. Pero vamos a ser realistas: hoy por hoy nos cuesta dedicar nuestro tiempo libre a trabajar en grupos diferentes, por eso queremos marcar prioridades y trabajar en los temas que más directamente nos afectan y nos interesan.

Para intentar mejorar los canales de participación ciudadana, en general, primero habría que intentar fomentar y potenciar la participación de la gente; para esto hay que motivar. Hay que demostrar que lo que se hace sirve para algo, hay que hacer sentir que la colaboración es necesaria y que con ella se mejoran las cosas. Nos parece importante también que los resultados se vean y se noten cuanto antes. Es necesario ser ágiles, y a nosotros y nosotras por lo menos, nos gustaría participar en proyectos a corto plazo.

La información sobre los sitios donde podemos participar los jóvenes se debería mandar a los lugares donde nos encontramos, porque sino, no nos enteramos. Ya sabéis donde estamos, ¿no?, en los colegios, en las plazas, en los gaztelekus...

Para que la información nos llegue, sería bueno que fuera llamativa; se pueden utilizar los medios de comunicación actuales y más cercanos a nosotros, Tele Donosti, Localia, la radio, Internet... así como música, anuncios y fotos.

Os proponemos realizar reuniones entre el Ayuntamiento y los chicos y chicas que sean delegados de clase para recibir información sobre los temas de interés en la ciudad, para que estos informen al resto de la clase. Esto se podría realizar en horas de tutoría, y al mismo tiempo, los delegados recogerían las opiniones de sus compañeros y compañeras y las trasladarían al Ayuntamiento.

El Ayuntamiento tendría que tener en cuenta las diferentes edades de la ciudadanía para preguntarnos sobre cosas que nos interesan. Por ejemplo, a la hora de hacer un parque, preguntar también a los niños y niñas lo que más les gusta, ya que son ellas y ellos los que van a estar allí con sus padres y madres y otra gente. Esto debería ser así porque todos tenemos diferentes necesidades y gustos según la edad.



Estaría bien que hicierais encuestas sencillas y referéndum, permitiría recoger la opinión de mucha gente a la que quizás no se pueda llegar de otra forma.

La participación de los y de las jóvenes se debería impulsar desde las Kulturetxes, los Gaztelekus y las asociaciones de barrio.

## 8. Propuestas para mejorar los espacios de participación ciudadana

Os lanzamos ahora algunas propuestas para intentar mejorar algunos espacios de participación concretos y así puedan estar presentes nuestras ideas:

### **Consejo Escolar de Deportes**

Por lo que se refiere al Consejo Escolar de Deportes se podrían mandar cartas a todos los equipos deportivos y a los entrenadores que también además suelen ser jóvenes, con información sobre lo que se hace en este grupo; creemos que los profesores toman parte en este consejo, pero en cualquier caso nos parece que no transmiten como nos gustaría lo que los jóvenes pensamos, por eso creemos que nosotros y nosotras debiéramos estar ahí para exponer, por ejemplo, cuales son los deportes que más nos gustan.

### **GAB**

Cualquier Consejo del Ayuntamiento debería tener relación con el Consejo Asesor de Jóvenes, y así cada vez que en estos consejos se fuera a tratar un tema que nos afecta a la juventud directamente, estaría bien que lo pusieran en conocimiento del Consejo y entre todos y todas, debatirlo.

Para ahorrar tiempo y dinero, el Consejo Asesor de Jóvenes debería poder contar con información sobre las actividades que los y las jóvenes realizan: deportes, actividades culturales, grupos de música de la ciudad etc. sus datos personales y la vía para ponerse en contacto; así si el tema a trabajar es por ejemplo los equipamientos deportivos, se llamaría a las y los que directamente viven el mundo del deporte y no a los que principalmente se interesan por ejemplo por la música.

### **WEB DEL AYUNTAMIENTO**

Para participar a través de la Web y expresar nuestras quejas, opiniones y sugerencias creemos que habría que adecuar el espacio que la Web tiene para esto. No nos ha resultado fácil movernos por esta página y nos resulta difícil encontrar lo que necesitamos.



## OTRAS

En movilidad no tenemos claro si nos gustaría participar, o mejor, vemos que hay temas a diferentes niveles y los más concretos, como por ejemplo, los bidegorris del colegio a casa o cómo poder llevar las bicis en el bus, nos interesan. Pero decidir, por ejemplo, las condiciones generales de las líneas de autobuses seguramente no. Vamos, iya veis que nos atrae más lo concreto!

A la hora de organizar las fiestas nos gustaría que hubiera reuniones abiertas en las que participar, y aunque hayamos oído algo sobre esto, la mayoría no nos hemos enterado.

Proponemos que haya un espacio en el que trabajar todo lo relacionado con el tiempo libre. Aquí tendrían que estar diferentes departamentos del Ayuntamiento que organizan actividades que desarrollamos en nuestro tiempo libre: deportes, cultura, el Centro de Atracción y Turismo, los grupos de tiempo libre, las Asociaciones de barrio etc.

Los Gaztelekus son espacios para que la gente joven participemos y nos parece apropiado dar más responsabilidad a los y las jóvenes en estos, por ejemplo a la hora de organizar las actividades.

Proponemos que las elecciones se hagan más a menudo, 4 años son muchos si los políticos no hacen bien su trabajo. No sabemos cómo, pero creemos que los partidos políticos deberían tener en cuenta la opinión de la juventud en sus programas.

Hasta aquí hemos llegado, ya hemos hablado bastante sobre el tema, ahora nos toca a todos y todas HACER!!!

Nuestro compromiso es estar atentos y atentas, ver que pasa en Donostia para implicarnos más en la vida de la ciudad.

Os pedimos que nos busquéis, que nos preguntéis, que nos escuchéis, que nos deis respuesta, que nos tengáis en cuenta en el día a día como decimos al comienzo de este manifiesto.

La ciudad es de todos y todas y mejorarla también es responsabilidad de todos y todas los que aquí vivimos.

Además, estar seguros que con nosotros y nosotras lo vais a pasar bien!!!

No nos despedimos, por que nuestro trabajo con vosotros y vosotras no ha hecho más que empezar con esta Audiencia. AHORA YA NOS CONOCEMOS!!!



Entzunaldi Publiko hau, honako hauen partehartzeatzeleei esker egin da:

Esta Audiencia Pública ha sido posible gracias a la participación de:

SAN IGNAZIO IKASTETXEA / COLEGIO SAN IGNACIO • ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA • EKINTZA IKASTOLA • LA ANUNCIATA IKASTETXEA / COLEGIO LA ANUNCIATA • AGI • ALTZAKO KALE HEZITZAILEAK / EDUCADORES DE CALLE DE ALZA • INTXAURRONDOKO KALE HEZITZAILEAK / EDUCADORES DE CALLE DE INTXAURRONDO • MUNDO NUEVO

Aitana Arruebarrena • Alberto Arizkor • Alex Cilveti • Álvaro Alonso • Álvaro Boes • Amaia Arzamendi • Amaia Lostao • Amaia Usandizaga • Amaya Elvira • Ander Ansa • Ander García • Ane Antoranz • Ane Francés • Ane Gaztelumendi • Ane López • Ane Miren Irizar • Ane Payer • Aritz Barrante • Arkatiz Gutiérrez • Asier García • Asier Salaberria • Blanca Otegi • Borja Jiménez • Carlos Gorospe • Carolina Garikano • Christian Aragón • Claudina Nfono • Daniela Corres • David Sáinz • David Vázquez • Diego Cardanha • Edurne Rodríguez • Eider Hurtado • Ekaitz Fernández • Elisa Berrios • Endika Arqueru • Eneko Orueta • Eric Castillo • Esther Arza • Esther Azkarate • Estitxu Larrea • Estitxu López de Munain • Eva Carazo • Fermin Martin • Fernando Picabea • Garráis Alvarez • Gorka Ibarburu • Gorka Navarro • Gorka Olañeta • Haiett Fornies • Haizea Larumbe • Haizea Mateos • Ibón Los Santos • Idota Genua • Iker Erauskin • Iker Ruiz • Imanol Azpeitia • Imanol Fernández • Imanol San Julián • Imanol Tostado • Iñigo Diez • Iñigo Varela • Ion Martínez • Ion Solabarrieta • Iratí Sánchez • Irene Pérez • Irene Alza • Irene Cormenzana • Irene Jiménez • Irina Etxaniz • Irune Rodríguez • Isabel Sistiaga • Itsaso Mendizabal • Itxaso Castillo • Itsaso Cruz • Itziar Urkiri • Jaime Arregui • Janire Irazusta • Janire Marques • Javier Cejudo • Javi Jiménez • Jennifer Castillo • Jennifer Gallardo • Jon Andoni González • Jon Ollokiegi • Jon Roncal • José Iturbe • Jose Luis Laguna • Julen Sarasola • Kepa Zubillaga • Lander Blanco • Lara Fernández • Lara Sánchez • Laura Martín • Laura Palomero • Leire Cía • Leire Díaz • Leire Urretabizkai • Leticia Amaro • Lisbeth Méndez • Lorea Larrañaga • M<sup>a</sup> José Solís • Maddalen Rezola • Maialen Alejos • Maialen Lázaro • Mainer Gómez • Malen Fernández • Maria Mediavilla • Mari Pepa Martínez • Markos Sánchez • Marta Bravo • Marta Errazkin • Mayara Díaz • Mikel Ganuza • Mikel Losada • Mikel Mendigain • Mikel Pajares • Mikel Renedo • Mikel Rivero • Mikel Villar • Miriam Otaduy • Nadia El Begdouri • Nagore Goiburu • Naroa López • Naroa Oñate • Natalia Fernández • Nerea Casado • Nerea Martín • Noelia Gallardo • Noemí Di Leo • Nora Del Puerto • Ohiana Fernández • Oihane Labayen • Oihane Vicuña • Olga Picó • Pablo Ijurco • Pablo Miner • Paul Garijo • Paula Maisuetxe • Paula Otaduy • Raquel Vignau • Rosa Ugalde • Ruben Moreira • Saioa Bueno • Sandra Tejedor • Sara Landa • Sara Terol • Sarah Zubiaurre • Sergio Luhia • Tania Colón • Tania San Jorge • Telmo

Zanguitu • Unai Erauskin • Urtzi Urtiaga • Usoa Pérez • Uxue Gómez • Vanesa Fernández • Vanessa Fernández • Verónica Estévez • Víctor Manuel Calvo • Xabier Cormenzana • Xavier Goizueta • Yaiza Hernández • Yasmina Retegui